



## **7. AZTERKETARIA**

### **AZALPENA:**

Sarrera ona egiten du: izenburua, nondik hartutakoa den, nork idatzi duen... Azalpenaren hasieran zehaztu egiten du zenbat ataletan bananduko duen eta zein diren atal horiek. Lehenbizi gaia laburbiltzen du, oso modu egokian egin ere.

Testuaren atal nagusiak oso ondo egituratzen ditu, eta horretarako testu antolatzaileak ere egoki erabiltzen ditu: "Hasteko", "Ondoren", "Bukatzeko".

Beharbada, alde makalena azpiatalen barruan egiten dituen loturena da; hau da, sarri errepikatzen du: "be bai esaten dute", "be bai azaltzen dute".

Gai da deskribapen argiak eta xeheak egiteko eta ideia zehatzak garatzeko. Azalpenak jarriotasunez eta bat-batekotasunez ematen ditu eta berezko jarioa erakusten du.

Hori guztia zuzentasuna gramatikal handiz egiteko gai da, diskurtsoa ongi egituratua eta jarraipen onekoa sortuta.

**Puntuazioa: 17**

### **ELKARRERAGINA:**

Egokitu zaion gaiaren tesia oso ondo defendatzen du. Gaiari orokorrean egiten dio sarrera, aldeko eta kontrakoaren ikuspuntuak gehituta. Agian, luzeegia da sarrera hori, beste azterketariaren esparruan ere sartzen baita.

Solaskideak esandakoak une oro hartzen ditu kontuan eta gai da esandakoei erantzun eta ikuspuntu berriak gehitzeko. Ez dauka inolako arazorik hark esandakoa ulertzeko. Hizkuntza malgutasunez erabiltzeko gai da.

Diskurtso zuzena eta aberatsa egiten du, ia ez du akatsik egiten eta oso jario naturala du.

**Puntuazioa: 16**

**Aise eta ondo gaintzen du C1 mailan eskatutakoa.**